

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko urtarrilaren 31



Baigorriko fanfarreak ere parte hartu du gaiteroen diskoan.

BAIGORRIKO GAITEROAK

## Herri bat kantuz

■ Baigorriko gaiteroek 25. urteurrena ospatuko dute aurten, eta hori dela eta, *Baigorriko soinu eta kantu* diskoa sortu dute. Igande arratsaldean aurkeztuko dute. Baina lan honetan ez dira Baigorriko gaiteroak bakarrik egon, herriko musikari eta kantariekin egin baitute.

Herri guztia kantuz. Gaiteroak aski maitatuak dira, finean. Euren historiari buruz Betti Bidart mintzatu zaigu. Tipia zelarik erori zen musikaren munduan, eta luzaz txistua jo ondoren, gaita jotzeari ekin zion duela 25 urte. Ezaguna du Ipar Euskal Herriko gaiteroen bizia. ■

### Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Gaur EGUNKARIArentzat izugarri lerro politik idazteko asmoa izan dut goizean goiz ernatu naizenean, baita hemendik bi egunera dudana azterketari dagozkion apunte letra-makur eta bukaezinei behin-betiko herio-kolpea emateko ere. Baina asmoak asmotxo gelditzen zaizkit askotan. Izan ere, franelazko izaren tentazioa gehiegitxo da niretzat!

Pausoak sumatu ditut sukaldean; gurasoena edo, gosaria prestatzen (Jakina! beraienak kotoi hotzekoak dira eta!). Zapata hotsek aldegin dute etxetik, erosketak egitera ziur aski. Hara ba! Gaur nik eginen nituela ez nien agindu ba! Hortxe eguneko nire hirugarren asmotxo.

### Asmotxoak

Baina altxatu beharko, eta altxatu azkenean. Neure burua salako sofana bota ondoren, ondoko mahaitxoan pilotutako apunteak hartu ditut sofa gainean marjinatuta uzteko, izan ere haiek ezkutitzen duten kotileo aldizkaria franelazko mairidireak baino tentagarriagoa da.

Pauso hotsak itzuli dira: norbaitek salan sartzeko keinua egiten du ate atzean; aitaren batean apunteak eskutian hartu eta aurpegia ilundu. Ikasle zintzo eta agobiatuaren papera ezin hobeto betetzen dudala dirudi, bazkaria prest zegoela abisatu arte beste inork ez bainau molestatu. Ez naiz ni nolana-hikoa itxurak egiten!

Bazkaldu eta gero ohe gainean etzan

naiz ditxosozko apunteez inguratutik, ikasteko benetako asmoarekin. Nire errua izanen al da ba loak hartu izana!

Ernatu naizenean kalera atera naiz bueltatxo bat ematera amak aholkatu bezala, azterketak sortutako nerbioak aireratzeko. Ai amatxo. Jakingo bazenu!

Honi guztiari buruz pentsatzen egon naiz arratsean, franelazko mairidire goxoko ohean sartutik. Eta dagoeneko erabakia hartua daukat: bihar goizean goiz jaiki eta azterketarako ikasi beharreko guztia ikasiko dut, EGUNKARIArako gutuna idatzi, aspiradora pasatu eta bazkaltzeko paella jarri. Horra hor biharko nire asmoak. Asmotxoak. X

## \* GURE AUKERAK

### KONTZERTUAK

**Agoitz:** Flitter eta PiLT taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, hilak 31, gaueko 21.00etatik aurrera, Arkupe aretoan. Sarre-  
rak 1.000 pezetan (40 libera) izanen dira salgai.

**Gares:** Obus eta Baron Rojo eskarmentu handiko taldeek rock kontzertua eskainiko dute bihar, otsailak 1, Gares aretoan, gaueko 23.00etatik aurrera. Sarrerak aurretik zein txarteldegietan 1.500 pezetan (60 libera) izanen dira salgai.

**Peralta:** Amistades Peligrosas taldeak kontzertua eskainiko du bihar, otsailak 1, gaueko 00.00etatik aurrera, herriko pilotalekuan.

**Zubiri:** Egan taldeak kontzertua eskainiko du bihar, otsailak 1, gaueko 01.00etatik aitzina, Gautxori aretoan.

### ERAKUSKETAK

**Zizur Nagusia:** Charo Monjeren margoak herriko kultur etxean ikusgai izanen dira gaurtik otsailaren 26ra arte.

**Lizarra:** Arabako Arte Eder museoan arte garaikideko bilduma Gustavo de Maeztu museoan izanen da ikusgai urtarrilaren 16ra arte.

**Iruñea:** XVII. mendeko flandriar margo barrokoak ikusgai izanen dira Nafarroako museoan martxoaren 2ra arte. Museoan astelehenetan itxita egoten da, asteartetik ostiralera 10.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 19.00etara zabalik izaten da, eta igande zein jaiegunetan 11.00etatik 14.00etara.

**Iruñea:** Rafael Calduchen *La presencia de la ausencia* erakusketa otsailaren 15era arte ikusgai izanen da Lekune galerian (Bergamin kalea, 14).

**Iruñea:** Desagertzeko zorian dauden herri buruzko argazki erakusketa ikusgai izanen da Iruñeko Udalaren Zapateria kaleko erakustaretoan otsailaren 25era arte. Argazki guztiak Magnum agentziarenak dira.

### BESTELAKOAK

**Lizarra:** Udaleko Gazteria Batzordeak bere logotipoa hautatzeko lehiaketara deitu du. Horretan parte hartzeko bete beharreko baldintza bakarra 30 urte baino gutxiago izatea da. Logotipoak aurkezteko epea hilaren 30ean amaituko da. Informazio gehiago behar izanez gero deitu 54 82 24 telefonora.

**Iruñea:** Frantsesez hitz egiten badakizu, frantsesez mintzatzea gustatzen bazaizu, eta ez bada-kizu norekin solastatu frantsesez, hurbil zaitez Niza kafetegiko lehen solairura. Bertan, asteatero arratsaldeko 20:30etatik aurrera frantsesezko mintza praktika egiten dute.

### nafarkronika

Fermin Erbiti

## Liburuak eta museoak

**O**rain dela 15 urte nafar editore batek Arturo Kanpion idazlearen obra osoa argitaratzea erabaki zuelarik, ofizialtasunetik kanpoko bidetan ibiltzen ez dakitenek hura erokeria hutsa, etekini-gabeko abentura arriskutsua zela adierazi zioten.

Zorionez, liburuzaleek uste baino interes handiagoa zuten Kanpionen idazkiak irakurtzeko, eta obra garestia izanagatik salmenta ona lortu zuen aipatu editoreak.

Urteak joan, urteak etorri, eta erabaki hura hartu zuen editore berak Silosko Monasterioan Nafarroako historiarik zaharrena aurkitu zuen, Pedro Agramont tuterarrak 1623an egina. Aurkiturikoa ezagutarazteak merezi zuelakoan, 200 kopia txukun egin eta ate joka hasi omen zen Euskal Herriko erakundeetan. Salgai jarri zuenetik sei hilabete joan diren honetan, obra hori ez duzue nafar erakundeetako liburutegietan aurkituko, orain arte hemengo agintariak ez dutelako egokitzat jo Nafarroako lehen historiak jabetzea. Are gehiago, editoreak Monasterioko arduradunekin mintzatu eta jatorrizko liburua Nafarroara ekartzeko aukeraz galdetzean, haiek

baietz, printzipioz akordioa egin litekeela. Agintariak jakinaren gainean daude baina Nafarroako lehen historia ez omen dago esku tartean dituzten lehentasunen artean.

Hemengo atea itxirik egon arren, ez pentsa erakunde guztion jokabidea hori denik. Horrelakoetan gertatu ohi den bezala, nafar honek Nafarroari buruzko liburua saltzeko orduan erraztasun handiagoa lortu du Gasteizen. Eusko Jaurlaritzak ale bat baino gehiago erosi omen dizkio gure editore abenturazaleari. Irakurriko al du, inoiz, Arzallusek? Bai, beharko luke, historia ezezik, Nafarroaren gaur egungo egoera ere hobeki estudiatu beharko luke, baldin eta Nafarroan interesik balu.

Horrekin zerikusia badu, nire ustez, karlisten museoarekin gertaturikoak. Gauza jakina da espainiar gobernuak legeztaturiko azken alderdiari legeko izateak ez ziola emaitza onik ekarri. Hauteskundeetan lorturikoa kontuan hartuz, argi dago karlisten alderdiak museotik gehiago duela alderdi politikotik baino. Ez da harrizkoa, beraz, alderdikideen xede nagusienetakoa museoaren iraupena ziurtatzea izatea. Bada, Diputazioaren ezetza jaso ondoren, Eusko Jaurlaritzako arduradunengana jo eta han baiezkua eman diete.

Ziur naiz historia liburu batek edota Zumalakarregiren txapelarendako txoko egokia presatzeak ez lukeela herenegun nafar administrazioak onarturiko 271.000 milioi pezetako aurrekontua desorekatuko. Zergatik orduan ezetza? Seguruasko diskurtso ofizialetan hainbertze aldiz aipatzen duten Nafarroaren historia ez dutelako uste bezain gustuko. Nafar administrazioaren ezetza jaso eta Gasteizko agintariengana jotzen dutenek zergatik lortu ohi dute han hemen ukatzen zaiena? Hori da, hori, misterioa. Nafarroari buruzko liburuak erosi bai, baina irakurri... hori bertze kontu bat da.



### asteko pertsonaiak



**Santiago Lopez Valdivielso**  
Guardia Zibileko zuzendari nagusia

■ Lopez Valdivielso Nafarroara bisita ofiziala egin zuen joan den asteartean. Guardia Zibileko burua Iruñean ez zen batere fin ibili adierazpenak egiteko tenorean. Adierazi zuenez, kale indarkeriaren arazoa «arrotza» zaio Nafarroari, eta istiluak «Euskal Herriko autonomi elkarte honetako bakea hautsi nahi duten taldeek eragiten dituzte». Abenduaz geroztik, Espainiako Poliziak 37 lagun atxilotu ditu Iruñerrian kale istiluekin eta sabotajeekin zerikusia dutelakoan. Bati Nafarroako *Y taldeen* arduraduna izatea leporatu diote, eta beste batzuei Gipuzkoan izandako zenbait sabotaje egotzi dizkiete. Orotara, horietako 16 lagun sartu dituzte kartzelan.



**Jose Maria Satrustegi**  
Idazlea eta euskaltzaina

■ Tartalo pertsonaia mitiko begibakarrak oinarri biologiko erreala izan zuela erakusten duten frogak badituela adierazi du Jose Maria Satrustegik, Arruazuko idazle eta euskaltzain osoak. Adierazi duenez, norbaitek —ez zuen zehaztu nork— begi-zulo bakarrek kaskezur baten argazkia igorri dio, eta, bere ustez, Tartalo mitoaren sorrera benetako begibakar berezi baten alde aurreko existentziari zor zaiola erakusten du irudi horrek. Satrustegi kanpoko hainbat antropologorekin batera mitoei jatorri biologiko erreala dutela dioen teoria aztertzen ari da azken aldian. Argazkiak gain, Arruazuko antropologoak beste herri batzuetako mitoi buruzko dokumentazio ugaria ere badu eskuartean.

### ahaztu gabe!



### INAUTERI ZAHARRAK

**Uztarroztz:** «Sanbizentotz negiaren bigotz» aditu zitzaion lehengo batean Uztarroztzko emakume bati. Bada, neguaren bihotzean inauteri hotsek mendean hartuko dituzte Errokariko herri horretako bazterrak. Aspaldiko inauteri zaharra berpiztu dute. Beraz, azken urte luzeotan ez bezala, bihar Aitanditxarko agertuko da Uztarroztzko karrika mehar eta aldapatsuetan. Aitanditxarko lastoz eta piltzarrez egindako pampina handia da: karrikaz karrika eramanez dute, eta gero plazan zintzilikatu eta, bukatzeko, su emanen diote maxkaroen oihu eta irrintzien artean. Maxkaroek kotak (gonak), oihal puskek eta trapu zaharrak jantziko dituzte soin gainean, eta, haurren atzetik ibiliko dira zerri maskuriekin neskatala-mutikoen buruak eta bizkarrak berotu nahian. Dena den, elizaren ondoan haurrek badute babesleku bat eta inguru horretan maxkaroek debekatua dute kolpatzea. Bihar, beraz, Uztarroztzen, Aitanditxarko, maxkaroak, puska biltzea, eskea, bazkari eta afari ederrak eta besta giro ederra, akordeolarien soinuarekin ederki lagunduta.

### adi!

#### Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

#### Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

#### Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

#### Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haur-entzako saioa 12.30etan.

## Bertiz

## Aurtengo plana onartu du Jaurreriak

Bisitarietarako zuzendatutako ekitaldi gehiago, kanpainak eta erakusketak izanen dira

**J**oan den asteartean egin zuten bileran, aurtengo plana onartu zuen Bertizko natur parkea kudeatzen duen batzordeak. Plan berriaren barruan, ingurugiro eta kultur heziketarekin, aisiarekin eta naturarekin zerikusi duten ekitaldiak antolatuko dituzte. Ikastetxeetan ere kanpaina berezia egingen dute.

Erredakzioa / Iruñea

BERTIZKO natur parkea kudeatzen duen batzordeak aurtengo ekitaldi plana onartu zuen joan den asteartean. Egitarau berriaren barruan, ingurugiro eta kultur heziketarekin zerikusi duten jarduerak eta beste batzuk orokorrak aurreikusitakoak dira, baita ingurugiroa zaintzeko edo Bertizko eraiñetan egin beharreko obrei buruzkoak ere.

Batzordearen bilera Bertizko Jaurreriko jauregian egin zuten, eta han izan ziren, besteak beste, Yolanda Barcina Ingurugiro kontseilaria eta batzordeko lehendakaria, Angel Sola Merkataritza eta Turismo zuzendaria, inguruko herrietako alkateak eta Carlos Irurtzun. Irurtzunen ingurugiroaren defentsarako taldeak ordezkatu zituen.

Aurtengorako onartutako planaren arabera, talde antolatuetan etortzen ez diren bisitarietarako zuzendutako hainbat ekitaldi antolatutakoak dira. Horretarako, Bidasoa ibaiaren, Turismo Bulegoaren eta jolastokiaren artean dagoen zelai hartuko dituzte bisitariak. Gune hori ia prestatu zuten.

Bestalde, ikastetxeetan kan-



1997. urterako plana onartu zuen asteartean Bertizko batzordeak.

ARTXIBOKOA

Naturari dagokionez, kudeaketa eta ikerketarako ekimenak bultzatuko dituzte. Beste batzuen artean, adibidez, zuhaitz exotikoen ordez bertako hainbat zuhaitz mota landatuko dituzte

paina bat egitea erabaki zuen batzordeak astearteko bileran. Ikastetxeetatik kanpo ere ingurugiro heziketa bultzatuko dute. Zabala etxeari buruzko programen bidez, eta baita Natura Interpretatzeko Zentroetara egindako bisiten bidez.

Erakusketek ere izanen dute lekuri plan berriaren barruan. Jauregian bertan natura eta etnografiari buruzko lau erakuske-

ta egingen dituzte, sei milioi pezeta aurrekontuarekin.

Naturari dagokionez, kudeaketa eta ikerketarako ekimenak bultzatuko dituzte plan berriaren bitartez. Beste batzuen artean, zuhaitz exotikoen ordez bertako hainbat zuhaitz mota landatuko dituzte. Bestalde, parkean diren ugaztunen zerranda eta jarraipena ere aurtun bukatzea espero du batzordeak. Eusko Ikaskuntza-

ren biodibertsitateari buruzko programaren barruan ere Bertizko mikrougaztunei buruzko lana egingen ari dira.

Bertizko natur parkeak urtean zehar jasotzen dituen bisitarietarako buruz ere mintzatu ziren batzordeko kideak. Iaz, adibidez, 76.631 bisitari izan zen parkean, aurreko urtean baino % 25 gutxiago. Aipatzekoa da beharpean talde antolatuetatik kanpo etortitako bisitarien artean gertatu dela. Nafarroako Gobernuaren arabera, hainbat arrazoi daude aldaketa azaltzeko, hala nola, iazko udan egindako eguraldi txarra. Iazko datuei buruz, halaber, aipatu beharra da abuztuko izan zela hilabeterik jendetsuena (14.308 bisitari). X

## Lizarra

## Herriarrek Zuhaitzaren Jaia ospatuko dute bihar

■ 445 zuhaitz erosi ditu Udalak egun honetarako

Erredakzioa / Iruñea

ZUHAITZAREN EGUNA ospatuko dute bihar Lizarran herriko ikastetxeetako kideek, eta oro har, herritar guztiek. Egun honetarako, 445 zuhaitz erosi ditu Lizarrako Udalak, eta horietako ehun -intxaurren doak-, herritarren artean banatu ditu asteen zehar.

Biharko jai-eguna goizeko hamarretan hasiko da. Ordu horretan, Puy, Mater Dei eta Santa Ana ikastetxeetako ikasleak San Frantzisko plazan bilduko dira, eta Remontival eta Lizarra Ikastolako ikasleak, be-

rriz, Trenbideko zubian. Talde bakoitzarekin bi gaitari izanen dira, eta guztiak Los Llanos parkean bilduko dira.

Ondoren, hamaika eta erdietan, Bihar antzerki taldeak *Puzle alegre* obra eskainiko du Remontival ikastetxean. Era berean, txokolate jatea izanen da bertan neska-mutilentzat.

Aurtun, bestalde, badu berrikuntzarik Zuhaitzaren Egunak. Izan ere, Udalak jakinarazi duenez, 1997. urtean zehar jaioko diren haur guztiek bihar landatuko dituzten zuhaitzen nolabaiteko jabe izateko aukera izanen baitute. X

## Corella

## Yergarako igoera antolatu dute herriko hiru taldek

■ Otsailaren 23an, goizeko 10etan abiatuko dira

Erredakzioa / Iruñea

SAIOA Mendi Taldeak, Corellako Udaleko Kirol Zerbitzuak eta herriko Cuatro Caminos Gazte Taldeak Yergarako herri-igoera antolatu dute, oinez. Ekimena datorren otsailaren 23an egingen dute Corellan. Nahi duten guztiek har dezakete parte. Horretarako, Miguel Indurain kiroldegian eman beharko dute izena. Epea otsailaren 10ean zabalduko da, eta 20an amaituko.

Ekitaldi honen bitartez, mendian eta ingurugiroarekin harremanetan egun on bat pasatzeko aukera eskaini nahi

diere antolatzaileek herritarrei, beti ere naturarekiko errespetua bultzatuz. Beraz, aurtengoa lehenengoa bada ere, datozen urteetan ekimena errepikatzen asmoa dute antolatzaileek.

Partehartzaileak Miguel Indurain kiroldegian elkartuko dira otsailaren 23an, goizeko zortzietan, eta bertatik abiatuko dira Yergarantz. Bidean, hamaiketako banatuko dute mendizaleen artean, eta igoera amaituta, berriz, ogitartekoa jasoko dute partehartzaile guztiek. Baita opari bat ere, Yergara egindako lehen herri-igoeraren oroigarri. X

## Arantza eta Uharte

## Inauteriak asteburu honetan ospatuko dituzte

■ Mozorroak, puska biltzea eta dantza izanen dira nagusi

Erredakzioa / Iruñea

ASTEBURU honetan inauteriak ospatuko dituzte Arantza eta Uharten. Arantzaren, atzo bertan hasi ziren aurtun prestatutako ekitaldiak. Eskian ibili ziren herriko gazteak. Baina ekitaldi nagusiak asteburuan izanen dituzte. Gaur, Aientsa eta Azkilarrea auzoetan barrena ibiliko dira herriko gazteak goizean eskian, trikitilarien laguntzarekin. Gau partean, berriz, Cristina eta Amaia taldeak alaituko du dantzaldia herriko plazan.

Bihar ere, puska biltzen ibiliko dira herriko neska-mutilak herrian barna. Arratsaldean, berriz, 5ak aldera, haurren mozorro jaialdia izanen da. Mozorroak izanen dira nagusi gau partean ere, gau-pasa mozorrotua izanen baita, Cristina eta Amaia taldearekin.

Igandean, azkenik, eguerdian hasiko dira eguneko ekitaldiak. Herri kirol desafi mundiala izanen da, herrian barna jarri dituzten kartekek iragartzen duten bezala. Donato eta Larretxea ibiliko dira herriko Lorentxo Apeztekoa, Tomas Oskoz, Oscar de Rueda eta Jose Miguel Errandonea gazteen aurka. Ondoren, arratsaldeko ordu bietan herri bazkaria izanen da Aterpe erretegiaren. Arratsaldeko zazpi eta erdietan emanen zaie plazan amaiera aurtengo inauteriei.

Uharten, bestalde, gaur hasiko dira inauteriak. Arratsaldeko zortzi eta erdietan, herriko txatxo-ak herrian barrena ibiliko dira poteatzen Uharteko gaiteroekin batera. Ondoren, gaueko hamarretan, babarrun jate herrikoia izanen da Berdintasuna elkartearen egoitzan, eta gero, dantzaldia dago iragarrita akordeoiekin.

Larunbatean ere izanen da ekitaldirik. Arratsaldeko zazpi eta erdietan kalejira izanen da, zantzar, gaitero, dantzari eta txatxo-ekin. Arrautzak eta txistorra bilduko dute herriko karrketan barrena. Bildutakoarekin afaria egingen dute gaueko hamarretan Berdintasuna elkartearen. Gaueko hamabi eta erdietatik aurrera, dantzaldia izanen da Elurte taldearekin.

Berdintasuna taldeak antolatzen ditu urtero Uharteko inauteriak. Herriko inauteriak, hain zuzen, orain dela hamasei urte berreskuratu zituzten Berdintasuna taldekoek, eta orain, arrakasta osoz ospatzen dira. Txatxo izenekoak dira egun hauetan pertsonaia nagusiak herrian. Haietakoak dira, hain zuzen, arrautza eta txistorra biltzeaz arduratzen. X

Baigorriko herria  
kantuz gaiteroekin

# Herri baten abentura musikala

Igandean 'Baigorriko soinu eta kantu' diskoa aurkeztuko dute Baigorriko gaiteroek, 25 urte beteta

**B**aigorriko gaiteroek aurten 25. urteurrena ospatuko dutela eta, lagunak eskatu zieten disko bat ateratzeko urtemuga ospatzeko. «Gaitero bezala ez genuen gauza handirik ekartzen ahal, beraz, proiektu zabalagoa osatu dugu herriko musikari eta kantariekin», azaldu du Betti Bidart gaiteroak. Eta horrela sortu da igande arratsaldean aurkeztuko duten 'Baigorriko soinu eta kantu' diskoa.

Lutxi Fourcade / Baigorri

EGUN mugitua izanen dute baigorriarrek datorren igandean. Rugbyzaleek benetako derbia ikusteko aukera izanen dute arratsaldearekin, eta apustuak hasi dira dagoeneko Donibane-Lohizunen aurka. Ez da dudarik baigorriar gehienak elkarretartuko direla rugby zelaiaren inguruan, baina partida amaitu bezain laster elizara joateko aukera izanen dute. Ez pentsa rugbyzaleak arrats-otoitzen jarraitzele amorratuak direla, baina kontzertu ederra entzuteko parada ere izanen dute, baigorriarrek emanik gainera! Izan ere, zortzi hilabeteko lanen ondotik *Baigorriko soinu eta kantu* diskoa aurkeztuko dute haraneko musikari eta kantariak arratsaldeko 17:00etan.

Abentura hasi zen joan den urtean Baigorriko gaitero taldearen 25. urteurrenari begira. «Iruñeko eta Nafarroako gaiteroek eskatu ziguten ospakizun berezia, disko bat grabatuz adibidez. Luzaz elkarrekin mintzatu ondoren, pentsatu genuen gaitero disko ugari bazirela eta ez genuela gauza handirik ekarriko», aitortu du umilki Betti Bidartek. Alabaina, ospakizun bereziaren ideia ez zuten baztertu, eta proiektu zabalagoari pentsatu zuten. «Gaitero disko hutsa egiteko ordez, pentsatu genuen aukera paregabea zela haraneko artistak biltzeko eta elkarrekin lanean aritzeko».

Eta hala hasi zen *Baigorriko soinu eta kantu* diskoaren abentura. Txistulariek, kantariak, koruek eta herriko fanfarreak behar onartu zuten elkarrekin lanean aritzeko proposamena. «Bakoitza libro zen aire bat edo kantu bat hautatzeko, eta landu ondoren, Niko Etxarten Kilikas estudioetan grabaketak hasi genituen». Hamaika kantu edo musika zati grabatzen hasi ziren joan den udan, eta batzuek Altxaiko bidea hartu bazuten ere, beste batzuk ez ziren herritik mugitu ere egin. Izan ere, Ibai Gorri eta Iguzki Lore koruek eta Arrola fanfarreak aire bat grabatu zuten Baigorriko Bil Etxean.

Oro har, haraneko bederatzita taldek hartu dute parte diskoaren grabaketan, baina beste anitz kanpoan geratu dira hautu bat egin behar zelako. «Kalitatearen aldetik ez da izugarriko lana, baina proiektu komuna egiteko asmoa genuen, baita haranaren aberastasuna erakusteko ere».

azaldu dute proiektuaren bultzatzaileek. Izan ere, kantugintzak eta musikak bizirik dira Baigorriko haranean eta diskoa dugu froga ederrena.

**Jazz Band doinuak fanfarrearen eskutik** • Arrola fanfarreko 40 gaztek parte hartu dute grabaketan, eta azpimarratu behar da zaharrenak 30 urte dituela. Musika taldea hasi zen 1937an, baina garai hartan *klika* hutsa zen. «Duela hamar bat urte taldea aldatu zen eta musika tresna gehiago sartu dugu», azaldu du Gilles Mocho fanfarreko ordezkariek. Musika landuagoa eta aberatsagoa hasi ziren plazartzen, lehengo doinu militarrek baztertu, eta arrakasta pollita biltzen dute Euskal Herriko plazetan. Hiru aldiz irabazi dute Frantziako Fanfarreen Lehiaketa, eta diskoaren proposamena gogotik onartu zutela aitortu zuten. «Guretzat esperientzia interesgarria izan zen, eta gure lanaz nahiko kontent gara», aitortu du Kattalin Oronosek.

Miren Aire ere, Aire Ahizpak hirukoteko kidea, pozik da. Grabaketaren lehen esperientzia izan zuten Txakun taldearekin duela urte pare batzuk, «baina benetako lana egin dugu aldi honetan kantuen kalitatea hobetzeko, baita teknika ikasteko ere». Izan ere, Kilikas estudioetan sartu baino lehen, hiru ahizpek Iruñeko bidea hartu zuten eta Txantreako jotoeroekin lanean aritu ziren. «Jotaren teknika landu dugu Fabian eta Milarekin, eta lana aberatsa izan da guretzat», dio. Iruñeko lagunak hasitako abentura bururaino eramane zuten eta mandolina eta gitarra jo dute diskoarentzat.

Kantu herrikoiaren garrantzia ere nabari da diskoan eta bi koruek parte hartu dute diskoan, bi belaunaldiren lekukotasunak eskainiz. Hamabost gizon helduk osatzen dute Ibai Gorri korua eta elizako kantua hautatu dute diskoarentzat. Korala sortu zen bigarren gerlatik landa baina hamar urteko isiltasunaren ondoren, berpiztu zen 1956an. Disko bat grabatu zuen 1963an eta geroztik taldeak iraun du, oztopo guztien gainetik. Eguzki Lore, berriz, haurren bozak ditu, eta kantu ederra abesten dute diskoan, *Biziaren izenean*. Haur koralak ez ditu hamar urte baina 50 kidek osatzen dute Mikel Erramusppek sortu duen taldea. Haran arrakasta handituz doa eta sari ugari irabazi ditu haur ko-



Baigorriko gaiteroak askotan izan dira Hego Euskal Herrian ere.

BAIGORRIKO GAITEROAK



**Baigorriko gaiteroak**  
Aire ahizpak - Magali Zubillaga  
Ibai gorri - Erramun Marticorena  
Etcheverry ahizpak - Iguzki lore  
Baigorriko txistu eskola  
Arrola Batterie Fanfare

Baigorriko soinu eta kantu diskoaren azala.

**Miren Aire:** «Benetako lana egin dugu aldi honetan kantuen kalitatea hobetzeko, baita teknika ikasteko ere»

**Betti Bidart:** «Proiektua gauzatu behar zen denok bero-bero ginelarik, bestenaz errekarra joan zen»

ruen lehiaketetan. Haraneko kantari ospetsuenek ere hartu dute parte dizkoan, eta nola ez aipa Erramun Martikorena, Magali Zubillaga edo Etxeberri ahizpak.

**Proiektu zabala inolako laguntzarik gabe**

• Antzeko proiektu komun bat egin da jadanik Uhartan edo Artaxonan, hots, gaitero taldeen inguruan, baina lehen aldi da Ipar Euskal Herrian egiten dela. Baigorriko gaiteroek gastu guztiak bere gain hartu dituzte eta 600 disko saldu beharko dituzte berdintzekotan. «Edezein laguntza eskuratzeko, izugarriko dosierra osatu behar duzu eta denbora anitz galtzen duzu. Proiektua gauzatu behar zen denak bero-bero ginelarik, bestenaz errekarra joan zen gure proiektua», azaldu du Betti Bidartek. Erran behar da badela 18 urte Nafarroaren Eguna antolatzen dutela baina ez dutela sekulan inolako diru laguntzarik eskuratu. Gauza bera egin dute diskoarekin, baina ez dute sobera beldurrik geroari begira. Argi erakusten dute erranez ez dutela oraindik pentsatu non salduko den diskoa. «Ez dugu aipatu ere, sobera gauza baikenuen finantzatzeko!», azpimarratu dute irriñoarekin. Alabaina, gauza bat segurra da: salgai izanen da Baigorriko elizan igande arratsaldean eta diskoa zuzenean entzuteko aukera paregabea izanen da.

Alabaina, duela zortzi hilabete hasitako abentura ez da bertan behera geldituko. Bigarren kontzertuaren proiektua dute udaberriko eta Iruñeko bidea hartzeko asmoa dute jadanik. Baina proiektuaren ondorio handiena haraneko jendeen artean nabaritu da, eta ez da dudarik izugarriko abenturaren abiapena baizik ez dela izanen. X

Baigorriko herria  
kantuz gaiteroekin

◆ Betti Bidart ◆ Baigorriko gaiteroa

# «Hastapenean ohartu ginen gaitaren doinuak jendea nolabait erotzen zuela»

Lutxi Fourcade / Baigorri

## ■ Nola sartu zen gaita Baigorri?


Garai horretan gaita ez zen baxterez eguna, baina baziren txistulariak. Guk Baigorri txistua jotzen genuen dantzari taldearekin, eta egun batez jin zen Lizarrako dantzari taldea Donibane-Garazira. Gaiteroak entzun genituen eta arrunt gauza arraroa zen guretzat. Xantza ukan genuen, zeren eta han ziren gaiteroek frantsesa bazekiten eta harremanetan sartzeko ez zen baxterez gaizki. Uztaritzeko lagunekin ginen eta erran genien Lizarrakoei interesatu ginela gaitaren ikasteko. Horiek izan ziren gure lehen harremanak gaitarekin 1971n. Bi gaitero horietatik bat Parisen bizi zen, eta artetan Euskal Herrira jausten baitzen, berarekin hasi ginen gaita jotzen.

Ondoko urtean, Baigorriko dantzari taldea joan zen Altsasuko ikastolaren bestara. Iruñeko ezagun batzuen bidez ezagutu genituen Iruñeko gaiteroak, Xabier Lakuntza eta Jose Luis Fraile. Erran genien hasi ginela gaita ikasten eta gehiago ikasi nahi genuela, landu. Horrela hasi ginen Iruñera joaten eta gure lehen urratsak izan ziren.

## ■ Gaita mundua nahiko murriztua izanez, ez zenuten zailtasunik izan mundu horretan sartzeko?

Mende honen erditsutan, gaita jotzen zen lau familiatan bakarrik: Elizaga, Agirretxe, Perez eta Montero familiak. Besta handi guztietan ari ziren, Iruñean, Lizarran, Tuteran besteak beste. Lakuntza anaiak hasi zirenean 70eko hamarkadan, beren baitarik hasi ziren eta desmartzak arrunt desberdina izan zuten. Lehenik tresna ongi ezagutzeko lan anitz izan zuten, eta hasi ziren tresnak egiten. Eskuin eta ezker bildu ahal izan zuten material guztiarekin lehen gaita metodoa egin zuten. Gaita mundua zabaldu eta hedatu nahi zuten, eta 1972an agertu ginelarik, segidan onartu zuten gure eskaera. Iruñera joaten ginenean, erakusten ziguten nola zen tresna, materiala eman ziguten (musika, tresna) eta lagundu gintuzten. Hastapen horretan ez ginen ardura joaten Iruñera, urtean bizpahiru aldiz bakarrik. Gure xokoan, lanean ari ginen Baigorri. Denbora berean, harremanak hartu genituen hango ikasleekin eta laster

**B**etti Bidart musika munduan erori zen ttipia zelarik, eta geroztik jarraitzen du musika jotzen eta erakusten. Luzaz txistua jo ondoren, gaita jotzeari ekin zion duela 25 urte, Baigorri eta Uztaritzeko gaiteroekin. Ipar Euskal Herriko gaiteroen bizia barnetik segitu du, eta Baigorriko gaiteroek 25. urteurrena bete dutelarik, hasiera hartako eta oraingo kontuez mintzatu da Betti Bidart gurekin.



Betti Bidartek duela 25 urte ekin zion gaita jotzeari.

BOB EDME

etorri ziren Ipar Euskal Herriko bestetara. Ikusiz gaitak zuen arrakasta handia hemen, pentsatu genuen merezi zuela lan baten egitea gaitaren inguruan.

## ■ Nola gertatu da gaitaren zabalzea Iparraldeko plazetan?

Hastapen-hastapenetik biziki sartze ona izan du. Alta, ez ginen biziki ontsa ari garai horretan! Lehenbiziko urtean gaita atera genuela Baigorriko bestetan, baginen Baigorrikoak, Uztaritzekoak, Parisen zen Fernando Lakuntza eta Tolosakoak. Gau guzian ari izan ginen gaitaren eta jende guzia dantzan gelditu gabe. Besta finitu genuen goizeko 07:00etan Baigorri osoa treskatuz eta elizako zubia pasatuta, denak errekan sartu ziren gaiteroen gibeletik! Iduri zuen gaitak jendea erotzen zuela eta ez zen dudarik bazela gune bat gaitarentzat herriko bestetan. Segidan ondoko urteetan galdeginak izan ginen 20 bat herritan. Bost urtez sartu ginen Zuberoako 15 bat herritan, Nafarroa Beherako 20 bat herritan eta Uztaritzekoak berdin hasi ziren Lapurdin. Lehenbiziko kontratuetan ere oroitzen naiz Sarako bestetara joan ginela 1978an. Frankismo denboran, Agirretxe anaiak etortzen ziren urtero eta 35 urtez ari izan ziren Sarako bestetan. Joan garelarik

*Ikusiz gaitak hemen zuen arrakasta handia, pentsatu genuen balio zuela lan baten egitea gaitaren inguruan»*

bazen hamar urte ez zela gehiago gaiterorik izan Saran, eta izugarriko arrakasta ukan genuen gaitaren ohidura zutelako. Geroztik urtero Sarara joaten gara.

## ■ 25 urtez, gaiteroen kopurua handitu da Baigorri eta Iparraldean?

Iruñeko gaiteroen politika bera segitu dugu eta ez dugu gaita atxiki guhaurendako. Gaitak bazuen bere tokia bestak animatzeko, eta, beraz, entseatu gara guhaur lehenik tresna lantzeraz, hobetzeraz. Orain badu zazpi-zortzi urte gure eskolak muntatu ditugula, leku gehienetan.

## ■ Zenbat gaitero talde ateratzen dira orokorki?

Badira bi talde Baionan berean, Uztaritzen biga, Baigorri biga, Senperen bat, Donapaleun beste bat eta Saran ere beste bat. Gero badira ikasle andana eskoletan eta denetara pentsatzen dut badirela mementuan gutxienez 40 bat ikasle. Erran behar da anitz

jende hasten dela baina uzten duela. Behar da ardura izan gaita ongi jotzeko. Ez da uzten ahal eta gero berriz hasi, gorputza eta usaiak berriz landu behar baitira. Lan baten segitea galdegiten du eta zailtasun handiena da.

## ■ Nola sartu ziren Baigorriko gaiteroak ziganteen ibilaldietan Iruñeko bestetan?

Iruñeko Sanferminetan sartu ginen ofizialki 1980an, eta erran behar da hasi ginelarik sekulan ez genuela pentsatuko ere egun batez ariko ginela Sanferminetan. Nafarroa Beherearen eta Nafarroaren arteko harreman berezia bada gaiteroen munduan. Gure desmartzak izan da lotura egitea Nafarroa batuagoari buruz eta harreman bereziak ditugu Nafarroa osoko gaiteroekin. Ardura galdegin ziguten harat joatea, hango dantzarekin edo bestetan, eta desmartzak hortarik landa sortu da Nafarroaren Eguna Baigorri Basaizea kultur taldearekin.

Alabaina, ez genuen sekulan pentsatu egun batez Iruñeko Sanferminetan sartuko ginela. Han bazen hemen ezagutzen ez dugun ofizialtasuna eta inportantzia. Urte batez, zinegotzian kulturaz arduratzen zen Perez Baldak galdegin zigun ea ariko ginen Sanferminetan. Garai ho-

rretan gaitero gutxiago zen Nafarroa guzian. Segidan baietz erran genuen eta hortik hasi zen. Geroztik, urtero Sanferminetan gaitarekin aritzen gara. Alabaina, azken urteetan tirabira batzuk izan dira. Ez dakit desmartzak horregatik den edo beste istorio pertsonal bategatik, baina hala ere mementuan beti segitzen dugu.

## ■ Gora-behera franko ezagutu ditu Baigorriko gaiteroen taldeak 25 urtez?

Denetarik izan da Baigorriko gaiteroen bizian eta bizi izan ditugu oren biziki latzak, gure taldean eta taldearen inguruan ziren jendeekin. Gure lagun handi bat hil zen 1979an eta hartu genuen petako bat. Ondoko urtean, 1987an, taldeko kide bat hil zen, Kristof Isteque. Kristofek biziki markatu zuen Baigorriko gaiteroen bizia, zeren bera sartu zelarik egin genituen ikaragarriko lana eta urratsak. Berarekin sartu ginen Iruñeko Sanferminetan eta garai horretan kasik egun guziz lanean ari ginen elkarrekin.

Egia da denak militante ginela. Ni kartzelatu ninduten 1987an, bera hil zen ondoko astean. Ondotik beste gaitero batzuk atxilotu zituzten eta mementu batez lau ginen kartzelan. Ikaragarriko laguntza eta anaitasuna izan genuen beste gaiteroengandik edo lagunengandik. Pentsatzen ahal zen gaiteroen taldea geldituko zela, baina Baigorri ziren beste lagunak lanean lotu ziren eta laguntza ikaragarria izan zuten beste gaitero guztienganik. Horrelako oren latzak ezagutuz, herri tipi batean, denak markatuak dira. Denak elkar ezagutzen dugu eta mementu batez batzuek ez zuten begi onez ikusten ibilmoldea eta borroka mota. Geure burua bazterturik senditzen genuen, baina aitzineira segitzeko asmoa genuen. Azken urteetan eskola muntatu genuen eta jende anitzek hartzen du parte. Beti parte hartzen dugu herriko bestetan edo kontzertuak ematen, ateraldiak egiten. Poliki-poliki gauzak normalizatu dira, nahiz eta ideia desberdinak izan. Jende batzuek ulertu dute egiten genuen lana gauza bat zela eta gure engaiamendua beste gauza bat. Hartako aurten egin dugun diskoa izan da guretzat puntu bat biziki inportantea harremanetan sartzeko jende guztiarekin, loturak egiteko, bakoitzak egiten duen lan guziarekin. x

Xanti Begiristain

## Justizia ez da berdina denentzat

■ Egia esan, aspalditik entzun dugu justizia ez dela berdina pertsona guztientzat. Hasiera batean batek ez du hori sinetsi nahi. Are gehiago, horrelako zerbait gertatu ahal izatea egundoko aldrebeskeria iruditzen zaio, eta uko egiten dio sines-teari. Baina denbora igarotzen den ahala, pertsona arrunt hori konturatzen hasten da baietz, horrela dela. Oso mingarria bada ere, ez du beste erremediorik eta aitortu beharra dauka zoritxarrez gure gizarte honetan behintzat, justizia, nahiz eta teorian *zuzentasuna* den, ez dela inolaz ere berdina administratzen pertsona guztiekin. Eta azken adibideetariko bat hortxe dugu Julen Elgorriagarekin.

Benetan gure harridura ahalmena dagoeneko oso zaildua dago eta horregatik jasaten du ia-ia botatzen zaion guztia, bestela norbaitek esan diezadala nola irents litekeen gure gizarte horretan gertatzen den guztia.

Hemen pertsonarik itsuenak ikus dezake, eta berdina, gizakirik sentigaitzenak ere sumatu ahal du, bi neurri oso ezberdin erabiltzen direla epaitzeko eta zigortzeko pertsona batzuk eta beste batzuk egiten dituzten delituengatik. Eta oso adibide argi eta nabarmenak ditugu, besteak beste GAL auziarena eta etakideena. Berdin-berdin erran daiteke intsumisoen afera eta auziari buruz, baina gaurkoz utz dezagun kontua lehendabiziko biek.

Oroimena pixka bat freskatzeko hona hemen GAL auziari buruzko adibide nabari batzuk: Amedori bota zioten 108 urteko kartzela zigorra eta aspalditik gozatzen ari da hirugarren gradua. Galindo jenerala ere, era berean, aspalditxoan askatu zuten, eta duela egun gutxi modu bertsuan

utzi dute aske, fidantzapean, Julen Elgorriaga, Gipuzkoako gobernadore zibil ohia, zazpi hilabetezko espetxe zigorra bete eta 25.000.000 pezetako isuna ordaindu ondoren, nahiz eta Lasa eta Zabalaren kasuan inplikatu eta nahasita egon.

Gogora dezagun GAL kasuan auzipetutako guztietatik bik baino ez dutela jarraitzen espetxean, alegia, Dorado eta Bayok. Beno, eta akaborako gogora dezagun Tejeroren kasua, nahiz eta GAL aferaren barruan ez egon.

Aipatutako kasu horietan guztietan, ikusten dugu gaitzegieak handiak eta larriak izan direla, baina hala ere, nahiz eta zigorraren hiru laurdenak ez bete, edota sendaezinezko gaitzik ez izan, hala ere barkatzen dizkiete beren erruak neurri handi batean, eta hori jakina!, alde batetik, ez dituzte sakabanatu munduko *ipurdiraino*, eta bestetik, ez da gizarte presiorik izan beren askapena aldarrikatzeko, baina hala ere, sarritan ikusten ditugu emaitzak.

Justiziaren aurpegiko beste aldean, aldiz, nabaritzen eta dastatzen dugu guztiz aurkakoa; hau da, preso politikoen artean badira ehun pertsona baino askoz ere gehiago zigorraren hiru laurdenak bete dituztenak, beste batzuk sendaezinezko eritasunak dituztenak, preso ugari sakabanatuta daudenak, oso tratatu txarrak jasaten dituztenak, beste gauza askoren artean.

Egoera larriagoetako hortxe ditugu gizartearen eskaerak, eta Gasteizko giza eskubideen aldeko jarrera politikoa, baina berdina da, argi dago gizarte honetan batzuei *Justiziak* irribarre egin eta laguntzen diela, eta beste batzuei ordea, kopetilun paratu eta behatzuak jartzen dizkiela. Justizia ere salgai dago! ■



Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Sakan Mix I: Blas Alegria Lakuntzako apez edestari

■ Edor, Izaskun eta Txomin sakanikolei esker onez, Ezetz irakurri! SAKANAKO ez da atzo goizean Vascongadetatik arribatu arrotz samalda eli batek Aralar eta Urbasa-Andia mendartetako trokak izendatzeko asmaturiko deitura berria, eta hau badiogu, ezta erretolika merke eta ments egitearren, halakorik nahi baino gehiagotan aditzea egokitzen baitzaigu, tamalez ordea. Bada jakin baitakigu, egun egungo arrandioso enpoildu handiuste pailardarre astofaldun eta, hondarrean, politiko erdalduen bekaiztik aisaegi bezain usuegi gure mendebaldeko auzanaiengan ediren ohi duela euskalgai bakarra, ertaroan berebizikoak iparraldekoengan kausitzen zuen gisa berean, eta oroit bestenez dokumentazio zaharrea Baxenafarroari aipu egiteko hazta daitekeen izen arrunta *tierra de bascos* dugula. Berriz ere *nihil novum sub sole*. Are tamalgarrigoa generake, izan ere mugerrietan sakanarik badira, eta guk dakigunez be deren. Ollaran aldeko Artetan zein Senosiainen, Belatasakana zein Aransakan dermioak, hurrenez hurren, badaude, eta ziur-ziurrik halako gehiagorik datezke oraino. Naski, Arakil ibaiak kurritu nasa arraildu sakonarena ongi aukeratu izena dugula, orografiari gagozkiola behinik behin. Eta gure Sakanan, behinola Aranazko herria zen hartan, Lakuntza hiria dugu, eta honetan ere. Dendaberri etxea, gure gaurko gizonaren sortetxea izan zena.

Txema Larreak eta Periko Diez-Ultzurrungok arestian apailatu Nafarroako euskal idazleak krestomatiaren lehendabiziko alean zioten landara, edozelan ere, arras gutxitua, 1983.eko azaroaren 9an Blas Alegria beraren jaioterrian Euskaltzaindikoei ospatu omenaldian irakurtu hitzaldietan jasotzen dena dugu lakuntzar honen ezagutarazgarri. Hartan hiriko erretorea zen Eugenio Ulaiarrek emandako berri andana guria bezain maratzat badaukagu batik bat. Gure idazlea 1883.eko otsailaren 4an sortu, eta ber herrian 1947.eko urriaren 12an zendu zitzaizun, hirutan hogeitalau urtetan. Aita, Jose Bizente Alegria Gillen, karlista amorratua zuen, eta ama, Anizeta Alegria Razkin, Etxarren-Arakilgo alaba. Gizon altua eta maikia, aurpegi latz eta eite serioa izateagatik ere xelebría eta umore onekoa. Lehendabiziko ikasketak txoko honetara honezkero ekarri Biktoriano Huizi etxarriararekin egin zituen Unanun, haatik ez dakigu hark zein neurrian benetan erakarri zuen euskal idazgintzarako. Teologia ozta-ozta nonbait amaitu ostean Lakuntzan geratuko zen betiko. Apez laguntzaile gisa ia beti, erretore lau urtetako epe laburrean ihardun zuen, 1934.etik 1938.era doan laurteko laburrean, Juan Eskala joan eta Nemesio Asurmendi etorri arteko betan. Bien bitartean Arakilgo arziprestazgoaren kapelau izendatu zuten, eta horren kariatz, tenore laburretan izanik ere, Latasa, Ilarregi edota Hiriberrin izandua zen. Iruñeko apezgaitegiaren 1925.ean sortu eta guda arte iraun Euskeraren Adiskideak batzako taldekidea ere izan genuen. Hartan laguna zuen Migel Intxaurren euskara irakaslearen arta betetzeko aukera luzatu bide zioten, baina langintza horrek altaraturik edota Dionisia bere arrebak zukuruzturik, etzuen zeregin horretan jardun, zoritxarrez, nahiz hainbat tokitan horrela ziurtatzen den oraindik.

Alegriaren ezagutzen dugun lehendabiziko idazlana *Euskal Esnalea*-n agertarazi zuen 1926.ean: *Irakurgai alaiak: Lakuntzako pertza*. Tolosako Doroteo Zaurrizi eskeini hau Larrea-Diez Ultzurrungoren bilduman badakarkigu irakurgai. Horrenbesteko sona izan duen pertzaren pasadizoa Jose Maria Iribarrenek 1940.eko *Retablo de curiosidades* nahiz 1946.eko *De pascuas a ramos* liburuetan ezagutzera eman zuen irakurleko erdalduaren artean, aldeztu aitzinetik Alegriak berak eskeini berria modu nahikoa satirikoan erabiliz: «Lakuntzako pertzak zer piñ egin zun? Ire aitak eta amak egin zuena». Edozein modutan ere, Donostiako izparringian agertu zuena ezta pentsa litekeenez Lakuntzako pertzarekin egitan agitutakoa, baizik eta *Damaren istorioa*, bere bestelako idazlanetan ere errepikatu zuen izate mitologikoa: «Ordu asko juatenmenzazkion damatxoari erreka baztarrian txutxunpiko, ugeizko moto gorria aliñokan, oñ txiki txuriyek sartuik ur otzien, onen geñalde agiri zen bere aurpegi zoagarrien iduri eder garbiyei beele txoatuik. Arren begiyen ditzdiakoak norbeit jotzen bazuen, adio, arren biyotza domatuik, betiko garbi enamoatuik. Bera berriz inortaz ere enamoatzen ez».

Halarik ere, egun Alegriaren ezagutzen ditugun gutiz gehiengo idazkiak Olabe sariketarekin dute zer ikusirik. 1887.eko azaroaren 15ean Euskara Bazkunak Serafin Olabe izendatu zuen ohorezko bazkide, eta hortik letorke sariketaren izena. Hasiera-hasieretatik aurkeztu zuen bere burua honetara, gaurko sariketetako hainbat sasi-idazleok dagigukeen antzera. Horrelakoa dugu *Aña Mari*: misiotako antzerkia, Iruñeko Sarasate pasealekuko 15 zenbakian zegoen Ricardo Gartziazen alargunaren irakolan argitaratutako liburuxka, 1928.ean Euskeraren Adiskideek antolatuta antzerki batzaldian saritua hots. Azalaren marrazkia M. Sagastik egin duen honek Migel Intxaurren irakaslea zuen aitaponte baikor. Bere 64 orrialdetan barrera Lakuntzako Baratzarrekalde baserrian bizi den familiaren berri ematen du antzertilan zaluzi laster honek. ■

# Kauteren jaia bihar

*Iruñeko Kauterak taldeak berreskuraturako suzko erraldoiak dira berrikuntza nagusia*

**A**zken urteetan bezala, eta Iruñeko Kauterak taldearen eskutik, kauteren jaia ospatuko dute iruindarrek bihar. Hungariar ijitoen bisita jaso ezezik, garai bateko Iruñean egondako Suzko Erraldioen Konparttsako hainbat kide ezagutzeko aukera izanen dute. Iruñeko Kauterak taldeko kideek lan handia egin dute galduta ziren pertsonaia hauek geureganatzeko.

Fernando Hualde / Iruñea

AZKEN urteetan bezala, kauteren jaia ospatuko dute bihar iruindarrek. Hungariatik etorritako ijitoek erabat itxuraldatuko dute egun batez Nafarroako hiriburuko giroa. Goizeko hamarretan bilduko dira talde guztiak San Lorenzo kalean. Bertan izanen dira, tartean, heraldoa, taldearen buru, arma Erregea, Nafarroako Mariskala, *botargas*, hainbat lagunabar, likorea banatuko duten kantinerak eta beste, guztiak Erdi Aroko soinekin jantzita.

Eguerdian, aurtengo kauteren jaiaren berrikuntza nagusia izanen diren erraldioen *suzko bataioa* egingen dute Katedralaren aurrean. Suginak su emanen dio erraldioen pirotekniari eta *Dantza kanonikoaren* erritmoari jarraituz dantza egingen dute. Ondoren, zaldikoek *animalien dantza* egingen dute. Azkenik, Abiltaseko Medianike dantza taldeak makila-dantza dantzatuko du.

Kauteren talde ezberdinek arratsaldeko bostetan izanen dute hurrengo zita. Alde Zaharrean barrena kalejira egingen dute, Gaztelu plazan bukatzeko. Gaueko hamarretan, musika bandak abiatuko dira Iruñeko kaleetan zehar, tartean, Jarauta 69, Barañain Txaranga eta Ziriopot. Ordu berean, inauterietako dantzaldia izanen da San Franzisko plazan. Bertan egingen duten Larrain dantzak amaiera emanen die aurtengo inauteriei.

Alde Zaharrean ezezik, Txantrea, Sanduzelai eta Milagrosa auzoetan ere egitarau berezia prestatu dute biharko egunerako.

**Suzko Erraldoiak berreskuratu dituzte** • Aipatu bezala, kauteren jaiak berrikuntza nagusia ekarriko du bihar Iruñeko kaleetara: bi mendeetan zehar galduta egon ondoren, Suzko Erraldoiak agertuko dira berriro ere iruindarren aurrera.

Iruñeko Kauterak taldeak, aurreko ekitaldietan bezala, berrikuntza bereziak sartu nahi izan ditu aurtengo egitarauan ere. Kauterek egindako lanaren ondorioz, hainbat mendeetan erraldoi konpartsa ezaguna izan zena berreskuratu dute iruindarrek. Maite Pascual Bonis historialariak hainbat urtetan egin du ikerketa eta lortutako datuei esker, pertsonaia hauen historia



Sanduzelai auzoko kauteren taldea, iazko jaietan. Erdian, Margarito hartza.

FERNANDO HUALDE



Banda eta txarangak Iruñeko karraketan barrena ibiliko dira bihar berriro.

FERNANDO HUALDE

fideltasun osoz berridatzi du. Maite Pascualen hitzetan, Suzko Erraldoiak «oso pertsonaia bereziak dira, eta ia gure hirikoak bakarrik». Izan ere, Udaleko erraldioen konpartsa kaleetan zehar ikustera ohitu gara, eta aiantzi egin dugu joan den mendearen eta baita lehenago ere, Iruñean beste konpartsarik bazegoela, Iruñeko Katedralarena edo Suzko Erraldoiarena kasu.

Suzko Erraldoiak, zehazki, norbanakoen edo gremioen ekimenez egingen ziren. Urtero, erraldoi bikote bat edo bi ateratzen zuten karraketara. Piroteknia sistema zaratatsua zuten erraldioek eta beste egin ondoren Gaztelu plazara ailegatzen zirenean, erre egingen zituzten.

Hori dela eta, antzina gure artean ezagunak izan ziren pertsonaia berreskuratzeko bideari jarraituz, Iruñeko Kauterak tal-

deak konpartsa berri honetako lehen bi erraldoiak ateratzeko erabakia hartu du aurtengoa. Iruñeko inauterietan bakarrik erabiltzeko egin dituzte, eta beste garaietakoak ez bezala, hauek ez dituzte erreko jaiak amaitzean. «Gure asmoa», azaldu du Iruñeko Kauterak taldeko Koldo Monrealek, «konpartsa datorren urtean osatzea da. Horretarako, beste bi erraldoi egingen ditugu. Datozen urteetan ere, Iruñeko Katedralako konpartsa berreskuratzeko asmoa dugu, Iruñeko Udalaren edo beste erakunderen baten laguntza jasotzen badugu behintzat».

Bihar Iruñeko karraketan ikusi ahal izanen diren lehenengo bi suzko erraldoiak *On Lancelot* eta *Arazuriko Graciosa anderea* izanen dira. Erraldioen diseinua Ana Garcia-Frescak egin du eta Kukubiltxo taldearen tailerrean

eraiki dituzte. Astoak eta arropa —ezin da erre—, berriz, Iruñean egin dituzte. Erraldoi bakoitzak hiru metro eta hogeitazentimetroko altuera du.

*On Lancelot* erraldoiari dagokionez, Erdi Aroko gerlaria da eta ohiko arropa frantsesa darama gainean. Antza denez, Iruñeko Katedralako Ate Ederrean agertzen diren gerlarien irudietan du jatorria. Jose Luis Fraile Iruñeko Kauterak taldeko kideak azaltzen duenez, «Carlos III.aren seme izan zen Lancelot izeneko gizon bat egon zen, Iruñeko apezpiku izan zena. Eta berak, hain zuzen, Arazuriko jauregia eraikitzeko agindua eman zuen». *Arazuriko Graciosa anderea*, berriz, pertsonaia ikusgarri eta dotorea da. Gona beltza eta jipoi gorria ditu soinean, eta ilea, Iruñerri XIV, XV eta XVI. mendeetan apaintzen zuten moduan dauka apaindua.

## Beran, aurten beranduago

**Edurne Elizondo / Iruñea.** - Hiriburuan bezala, Beran ere Hungariako bisitariak iragarriko dute mozorro egunen hasiera. Aurten, dena den, inoiz baina beranduago iritsiko dira kauterak herrira, inauterietan hasiko diren asteburu berean, eta ez aurrekoan, ohi denez. Beraz, otsailaren 8an ospatuko dute aurtengo kauteren jaia.

Momo erregeak bidalita etorriko dira kauterak Berara. Ilekuta auzoan egin dute guztiak zita, arratsaldeko zazpiak aldera. Legia karrikatik barrena, Herriko Etxeko plazara iritsiko dira. Bidean, beratarrek hainbeste maite dituzten abestiak kantatuko dituzte hungariar bisitari bereziak, pandereta eta zartagi eta mailuen hotsak lagunduta.

Urtero bezala ere, herri askotako inauterietan protagonista den hartza izanen da Beran ere datorren asteburuan. Hungariar ijitoek ongi erakutsi diote, eta haurrak ikaratu ezezik, dantza egingen ere badaki. Herriko Etxeko plazara ailegatuta erakutsiko du beratarren artean hartzak bere trebezia.

Hartzak bezala, kauterek ere dantza egingen dute Herriko Etxeko plazan, baratzuri zopa dastatu aurretik, azken urteetan bezala. Berako txarangak bi polka asmatu zituen inauteri egun honetarako propio, eta Gure Txokoa taldeko dantzariak, berriz, koreografia.

Dantzarako ezezik, maitasunerako tartea ere izanen da Berako kauteren jaietan, hungariar ijitoen erritmoari jarraituz, bi kauteren arteko ezkontza egingen baitute. Baina, beti bezala, aurtengo bikotea zein izanen den azken unera arte sorpresa izanen da. Ezkontza ospatzeko, baratzuri zopa jan eta ikusleen artean banatuko dute kauterek, jaiari amaiera emateko.

Kauteren egun honetan parte hartu nahi dutunek otsailaren 5 eta 6an izanen dituzte entseiuak, arratsaldeko zazpi eta erdiak aldera, Iamotenea Gure Txokoaren egoitzan.

Aurten hungariar ijitoak berandu etorriko direnez, asteburu berean kauteren eta ifude eta artzainen jaiak ospatuko dituzte Beran. Azken hau, hain zuzen ere, otsailaren 9an izanen da, inauterietan lehen egunean.

Iaz 32 bikote bildu zituen Gure Txokoa taldeak ifude eta artzainen dantza herriko karrika guztietan zehar agertzeko.

Goizeko hamarretan hasiko dira herriko gazteak dantzan eta goiz osoa eman ondoren, Zalain jatetxean bazkalduko dute eguerdi partean. Dantzariekin batera, Lamixine Berako Antzerki Taldeko kideak aterako dira kalera, eta garai bateko herriko pertsonaia nagusien paperak antzeztuko dituzte, hala nola, medikua, alkatea, edo apez-zarena. X

◆ Rafael Cortijo Gorraiz ◆ Gurutze Gorriko kidea

# «Esperientzia aberasgarria izanen da»

**R**afael Cortijo Gorraiz iruindarra Espainia-ko Gurutze Gorriko koordinatzaile izendatu dute Afrikako Laku Handien eskualderako. Madrilen jasotako laguntza guztia hara bidaltzea izanen da bere lana. Horretarako, printzipioz, bi hilabete emanen ditu Espainiako hiriburuan.

Edurne Elizondo / Iruñea

IRUÑEKO Yanguas eta Miranda kalean Gurutze Gorriak duen egoitzan hartu gaitu Rafael Cortijok, Madrilerantz abiatu aurretik. Datorren astelehenean bertan izanen da. Eta kontent gainera, beretzat esperientzia berri hau hagitz aberasgarria izanen dela ziur baita.

■ **Zehazki, zer lan egingen duzu Madrilén?**

Madrilen laguntza humanitarioa koordinatuko dut, hau da, Laku Handien eskualdera bidaliko den guztia koordinatuko dut. Horretarako, funtsean, bertan Gurutze Gorriko ordezkarien informazioa jasoko dut, eta beraiek eskatutakoaren arabera laguntza bidaliko dugu guk. Une honetan plastikoa eskatzen dute gehienbat, etxolak egin ahal izateko, baita ura, arropa, janaria eta abar ere. Gurutze Gorriaren asmoa astero igorpen bat egitea da, baina badakigu zaila izanen dela. Hau laguntzarik larriena izanen da, gehien behar dutena. Baina epe ertainera eta epe luzera begira ere baditugu proiektuak, zonaren garapena bultzatzeko. Gure asmoa, dena den, ez da bertara jende asko bidaltzea, bertakoekin lan egitea baizik. Horrela, guk alde egiten dugunean, nolabaiteko egitura gelditzen da aurrera egin ahal izan dezaten.

■ **Iruñetik Madrilera, Ruandara bidaltzen den laguntza koordinatzeko. Ezustekoa izan al da zuretzat zure izendapena? No-**

«Medicos del Mundoko kideak hil nahi zituztelako hil zituzten, ez zen bereizi gabeko hilketa izan, eta horrek asko kezkatzen nau»



Gurutze Gorriko Ruandarako koordinatzaile izanen da Rafael Cortijo Madrilén.

LUIS AZANZA

**la hartu duzu berria?**

Gurutze Gorrian gaztetxo bat nintzenez sartu nintzen eta oso lan ezberdinak egin ditut taldearen barruan. Berriki, garapenerako proiektuen ordezkarientzat ikastaro bat egin nuen. Abenduaren 22an itzuli nintzen Iruñera, eta hamabost egunera, Madriletik dei egin zidaten. Bai, ezustekoa izan zen, hasieran ez nuen sinesten ere. Orain hasi naiz sinesten. Baina pozik nago, esperientzia ona izanen dela uste baitut, bai niretzat, bai Nafarroako Gurutze Gorriarentzat.

■ **Ruanda eta Zairen milioi bat lagunetik goiti daude laguntzaren premian, euren etxetik kanpo, aipatu duzue. Jende horri laguntza bidaltzea al da zuen funtsezko xedea?**

Egia da herritik kanpo jende asko dagoela eta laguntza behar dutela, baina hori ez da arazo bakarra. Etxean gelditzen diren egoera ere kezagarria da, indartsuenaren legea inposatu baitute Ruandan. Orain, gainera, Medicos del Mundo erakundeko hiru boluntarioen hilketaren ondoren, oso kezkatuta daude denak, zer gertatuko den beldur. Alde horretatik, erran beharra dago Gurutze Gorriaren bandera asko errespetatzen dutela mundu osoan, baina bandera horrek ezin ditu balak geldiarazi. Eta lan asko dago egiteko.

■ **Denbora nahikoa izanen al da bi hilabete?**

Agian ez, baina epe bat ezarri beharra dago beti. Denbora gehiago behar izanez gero, izanen da luzatzeko aukera. Dena den, ongi aprobetxatuz gero bi hilabete gauza asko egin daitekeela uste dut. Eta niretzat oso hilabete garrantzitsuak izanen dira. Lanaren berri eman zidatenean esan zidaten ez nintzela Ruandara joanen, baina agian izanen dut

aukera, hara joan eta bertako errealitatea ezagutzeko. Honela, agian, hara joan eta bertan zer dagoen ikusita, arazoaren irudi zehatza egin dezakegu, hemengoak han gertatzen ari denaz beretan jabetzeko.

■ **Medicos del Mundo gobernuz kanpoko erakundeko hiru kideen hilketa aipatu duzu. Antza denez, boluntarioak bilakatu dira orain hiltzaileen xede. Nola bizi duzue zuek egoera hori?**

Argi dago, Medicos del Mundo-ko kideak hil dira hil egin nahi zituztelako, ez dira bereizi gabeko hilketak izan. Eta ni oso kezkatuta nago, asko kezkatzen nau pentsatzeak nire lankide bat edo zuen lankide bat erahil dezaketela, hangoak laguntzen edo hango egoera erakusten saiatu izan direlako bakarrik. Agian norbaitek ez du Ruandako arazoa konpontzerik nahi.

■ **Nazioarteko komunitateak Ruandako gatazkan betetzen duen edo bete dezakeen egin-kizunaz ere asko hitz egin da.**

s o s l a i a

Rafael Cortijo 30 urteko iruindarra da, Carmen kalean jaioa. Gurutze Gorria haur bat besterik ez zenean ezagutu zuen, eta geroztik, hamaraka lan egin ditu bertan. Ruandarako Gurutze Gorriko laguntza humanitarioaren koordinatzaile izendatu arte, Nafarroako Gurutze Gorriko Sorospen eta Larrialdietako ardura-duna zen.

Baina Gurutze Gorriko kide ezetik, zerbitzari ere bada Iruñeko ostatu ezagun batean. Madrilerara joateko, hain zuzen, zerbitzari lana utzi behar izan du. Oraingoz, dena den, ez da damutu, lan berria esperientzia ona izanen dela ziur baita.

Ostatuko lana ezetik, zuzenbide karrera ere Iruñean utziko du Madrilén dagoen bitartean. Baina Rafa Cortijok aitortu duenez, azken urteetan ez dio arreta handirik eskaini. Gurasoak eta neskalaguna ere hemen geldituko dira, baina Gurutze Gorrikoak azaldu digunez, eurek animatu dute gehien lan berria hartzeko.

**Ser deritzozu zuk?**

Hasteko, erran behar dut herri guztietara joan garenean guztia hankaz gora jarri dugula. Ni, kooperante naizen aldetik, ikastera joaten naiz beti leku guztietara. Baina historiari erreparatuz gero, argi dago leku guztietara bertakoak zapaltzera joan garela, indartsuenaren legea ezartzeri. Il-do horretatik, gertatzen ari denaren zati baten erantzuletzat jotzen dut nere burua. Nazioarteko komunitatearen paperari buruz hitz egiterakoan, uste dut denbora asko izan dutela zerbait egiteko. Han ziren misiolari edo kooperanteek askotan erran dute egoera ez zela batere ona. Baina telebistan irudi izugarri horiek guztiak ikusi arte ez da deus egin. Orain gertatzen ari den guztia lehenago aurreikusterik bezeroa uste dut. Bada, gainera, ni asko kezkatzen nauen arazo bat. Alde batetik Ruandaren egoera tamalgarria da, jende gosez hiltzen da, baina, bestetik, armak ailegatzen dira. Nik ez dut ulertzen. x

## P A N E LUCRÁNDO

ZALDI ERDA

LIRIKAZ  
HONATAGO  
•46•

GAUR:

KLEOPATRA  
W.Shakespeare



Zinez amodioa bada,  
esaidak zenbat.

Miseria da amodioa  
kalkulatu daitekeena.

